

NORTAZ FIDA?

Espainiako konstituzioa onartzen genuen ala ez galdetu ziguten hego euskaldunoi, joan zen abenduaren seian.

Aurreko hileetan behin eta berriz esan ziguten abenduaren seian erabaki behar genuena gauza oso inportantea zela. Eta izan ere bazen, Hego Euskadiren etorkizuna zegoelako jokoan. Hainbat diru gastatu zen Konstituzio Espainolaren Erreferenduma Euskadin aurrera ateratzeko.

Hego Euskadiko hirugarren parteak onhartu egin zuen Konstituzio Espainola; baina Hego Euskadi erdiak baino gehiagok ez zuen onartu.

Hego Euskadiko maioriak, bada, errefusatu egin zuen Konstituzio Espainola. Beraz, Hego Euskadik ez dio bere onespenerik eman Espainiako Konstituzioari. Gehiago oraino, bere errefus argia eman dio.

Hala ere, inork ez dio kasurik egiten Hego Euskadiko Herriari. Hego Euskal Herriak esan duena inork ez du entzuten edo ez du entzun nahi.

Espainiako gobernuak ez dio kasurik egiten gure herriari eta kasurik ez egiteko arrazoi-tzat jartzen du Estatu Espainolak onartu egin duela konstituzioa. Eta Estatu Espainolak bere onespenera eman diolako, Hego Euskadik ere onartu duela.

Baina, okerrago dena, Euskadiko Parlamentariaren Asanbladak ere ez dio jaramonik egiten bere herriari. Hego Euskadik Konstituzio Espainolari bere errefusa emanda ere, Hego Euskadiko Parlamentariaren Asanbladak erabaki eta errefusatu duen konstituzioa-

ren pean egingo duela Autonomi Estatutua. (Ez ote da sortuko beste munstroren bat: Autotutuaren "esta"momia, adibidez?).

Ezer berririk jazo ez balitz legez jokatu du Hego Euskadiko Parlamentariaren Asanbladak Euskadik serio hitz egin eta hurrengo egunetik.

Estatutuaren teilatua ezin dela egon inola ere Konstituzio espainolaren teilatua gaineretik ari dira esaten Hego Euskadiko Parlamentariak. Itxura batetan ez dira enteratu ere egin oraino erreferendumaren erresultatuez. PSOE, adibidez, esaten ari da oraindik bera dela Hego Euskadin alderdi maiortaria. Antza dagoenez, ez daki ehuneko 35 baino ez direla izan Konstituzio Espainola bai-eztu dutenak. Eta berarekin batera beste hainbat alderdik defendatu duela Konstituzioari baietza ematea.

Baina ez dira sozialista estatutalak bakarrik. Alderdi abertzaleak ere bide berdinetik abiatu dira. Parlamentari abertzaleentzat ere Konstituzio Espainolaren teilatua da Estatutoaren go-renengo muga. Eta, funtsean, arrazoi berdina jartzen dute: Euskadi independente izatea nahi dugu guk; baina Madrile eta bere indar faktikoak hor daude. Horren aurrean ez dugu beste erremediorik beren esanetara burua makurtzea baizik. Laburrean haxe esaten dute hala Bandresek eta Monrealek nola Arzalusek eta bere kide-ek.

JULEN KALZADA